

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1293

AGINDUA, 2024ko martxoaren 4koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, Gipuzkoako kostaldean, Zarautzetik iparraldera, 100 m inguruko sakonerako hondoen gainean 312 ha-ko itsas haztegietarako gunen baten ezarpena sailkatzen duena.

Itsas arrantzari buruzko martxoaren 13ko 6/1998 Legearen 33.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, «Eusko Jaurlaritzari dagokio itsas hazlekuen motak eta beraiek ezarri eta ustiatzeko baldintzak sailkatu eta arautzea».

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailak, akuikultura arloko plangintza estrategikoa aplikatuz eta aplikatzeko bete beharreko legezko izapideak bete ondoren, itsas haztegien jarduera ezarri nahi du xede horretarako aproposak diren itsasbazterreko eremu batzuetan. Bestetik, 2021-2030 aldirako EBko akuikultura jasangarriagoa eta lehiakorragoa izateko gidalerro estrategikoei (Europar Batzordearen komunikazioa. COM/2021/236) ezartzen dute espazioaren plangintzak aurreratu egin behar duela itsas zabaleko akuikulturaren garapena, baldintza naturalak ahalbidetzen dutenean.

EAEko 2030erako Akuikulturaren Garapenerako Plan Estrategikoarekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzako Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak erabaki du Getaria eta Zarautz arteko itsasertzean espezie autoktonoetako arrainak itsas zabalean hazteko poligono baten ezarpena sustatzea.

Horiek horrela, agindu honen xedea da Getaria eta Zarautz arteko itsas-lehorreko jabari publikoaren itsasertzeko tartean akuikultura-poligono bat ezartzea eta sailkatzea. Horretarako, proposatutako ekoizpen-eremuetan aldiro egindako analisiak eta laginketa zelatariak hartu dira aintzat.

Arau honek hainbat erakunderen eskumenetan eragiten du; hori dela eta, agindu hau egiteko orduan, kontsulta egin zaie erakunde horiei.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuarekin bat etorritik, sail horren jardun-arloen eta egitekoen artean daude itsas akuikultura antolatzeari dagozkionak.

Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:


Lehenengoa.– Gipuzkoako kostaldean, Zarautzetik iparraldera, 312 ha-ko itsas haztegietarako gunen baten ezarpena sailkatzea, 100 m inguruko sakonerako hondoen gainean, eta Getaria eta Zarautz arteko itsasertzean espezie autoktonoetako arrainak itsas zabalean hazteko poligono baten ezarpena sustatzea. Araudiari dagokionez, poligonoak honako baldintza nagusi hauek beteko ditu:

a) Garatu beharreko jarduera «akuikultura» motakoa baino ez da izango; hau da, FAOren (Nekazaritza eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundea) definizioaren arabera, uretako organismoak uretan ekoiztera eta gizentzera bideratutako jarduera.

b) Ingurunearen arabera, egin beharreko akuikultura «itsasokoa» izango da.

- c) Jarduerak espezie autoktonoetako arrainak bakarrik hartuko ditu.
- d) Jarduera akuikultura intentsibokoa izango da: ahalik eta espazio eta denbora gutxienean ekoizpen handiagoa bilatzen duen sistema.
- e) Egin beharreko akuikultura «itsas zabalekoa» izango da; ekoizpena babesik gabe eta olatuen mende dagoen itsas eremu batean kokatuko da.
- f) Ekoizpenaren helburuagatik, egin beharreko akuikultura «komertziala» izango da, eta poligonoaren barruan kokatutako ekoizpen-sistemak eta horien zatiak jabetza pribatukoak izango dira (hala ere, poligonoa Administrazio Publikoak kudeatuko du).
- g) Gauzaten diren akuikultura-proiektuek instalazioen funtzionamendu-probaldiak izan ditzakete.

Bigarrena.– Akuikulturako poligonoa ezarri nahi den eremuaren kokapena zehaztea (urdinez), Getaria eta Zarautz udalerrien (Gipuzkoa) parean dagoen itsasertzeko zatian.



Poligonoaren barruan tamaina desberdineko hiru azpieren proposatzen dira: A azpieren (50 ha), B azpieren (50 ha) eta C azpieren (75 ha). Horiek Arrantza eta Akuikulturako zuzendariaren ebazpen bidez egindako deialdiaren bidez esleituko dira.

Hirugarrena.– Agindu honen xede den poligonoaren eremuaren barruan instalatu beharreko establezimendu edo ekoizpen-unitate motari dagokionez, arrainen itsas zabaleko hazkuntza-sistemak izango dira. Urpeko instalazioek erresistentzia handia izan beharko dute eguraldi txarraren aurrean, eta denboraren % 100ean urpean, zati batean edo osorik, jarduteko diseinatuta egongo dira. Instalazio horiek flotagarritasuna handitzeko sistemak eduki ahal izango dituzte, eta urazalera igotzekoak, mantentze- eta ereite-lanetarako, sailkapenetarako edo uztarako.

Laugarrena.– Urtero, arauzko analisiak eta laginketak egingo dira ekoizpen-eremuaren barruan dauden uren sailkapena ezartzeko.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ahalmena ematen zaio Arrantza eta Akuikulturako zuzendariari agindu honetan xedatutakoa gauzatzeko behar diren neurriak har ditzan.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdu- nek berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 4a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.